



Urtarrilaren 2an sartu zen indarrean Etxebiden jabego eta alokairuan izena ematea arautzen duen 2012ko Urriaren 15eko araudia. Araudi horren arabera, egoera administratibo irregularrean dauden atzerritarrek etxebizitza alokairuan eskatzeko aukera galtzen dute. Araudi berria baliatuz, egoera irregularrean dauden atzerritarrek gutuna jaso dute erresidentzia txartela aurkezteko eskatuz, bistan denez, ezinezkoa zaiena. Sos Arrazakeriaren aburuz, krisiladiaren aitzakiapean eskubide sozialen murrizketa larria dugu. Garai honetan egoera irregularean dauden pertsonen osasun sistemarako sarbidea ukatu zaie lehenengo, eta orain etxebizitza alokatzeko eskubidea galaraziko diete. *"Ez da beste murrizketa bat. Bertan bizi diren pertsona guztientzako estatutu berdina mantentzeko printzipioaren haustura da ."* diote arrazakeriaren kontrako kideek.